

GURASOAK IPUIN KONTALARI



Guraso talde bat eskolako ekintzan parte hartzena animatu da eta ipuin kontalari bezela aritu dira. Era guztietako ipuinak kontatu dituzte: aintzinako kontu zaharrak, interneten aurkitutakoak edota beraien herrialdeko ipuinak eta istorioak.

Ikasleak adi adi egon dira eta oso gustora entzun dituzte beraien gurasoak.

Etxean baino kasu gehiago egin dutela diote guraso batzuk.



BERRIAK

MASAI-en HERRIALDEA EZAGUTZEN



Tanzania eta Keniako lurradean kokaturik Masai-en herrialdea dago.

Herrialdean bertan, urik ez dutenez, kilometro asko ibili behar dute lortzeko. Hori dela eta, ur putzu bat eraiki nahi dute, eta Ermuko ONG batek eta Udalak laguntzen dihardute. Hori dela eta Masai bat etorri da eta bertako bizimodua kontatu digu:

nolako ohiturak dituzten, janzkera, oinetako gabe ibiltzen direla, eskolara joateko kilometro batzuk ibili behar dutela... PILA BAT IKASI DUGU!!

SAN LORENZO ESKOLA JARDUNALDI MIKOLOGIKOETAN

Ermuan ospatzen den perixiko erakusketa, San Lorenzo eskolak parte hartu du Natura tailerrean egindoko hainbat eskulanekin.

Benetan ikusgarriak!!!



COMISIÓN DE CONVIVENCIA

¿Qué es para tí CONVIVENCIA?
Se busca una definición de su

significado. ¿Acaso será mejorar el bienestar de los integrantes de nuestro centro: alumnado, profesorado, cuidadores de comedor, familias...? Si lo sabes escribe la respuesta en un folio e introduce en una caja que encontrarás en la entrada principal.

ANIMA ZAITEZI !!!

HAUR HEZKUNTZA

ONGI ETORRI ESKOLAKO IKASLE BERRIEI




Hona hemen eskolako 2 urteko gelakoak. Jolas-teko eta lanerako prest



4 ETA 5 URTEKOAK TXIKIPARKEN

Han ahatetxoak zeuden eta guregana etorri ziren bokata goxoen bila.






Zornotzako Txikiparkean gelditu gabe egon gin-
nen jolasten. Poz pozik ibili ondoren, bazkal-
tzeko erreka ondoan dagoen parkera joan ginen.




1. ZIKLOA




IZENADUBA Parke Mitilogikora joan gara txangoan eta bertan hainbat personai ezagutu ditugu (Tartalo, Basajaun, Anbotoko Mari, Maritxu Tei-latuko...) ikus-entzunezko muntainen eta joko interaktiboen bidez.



Ondoren, bazkaltzera parkera joan gara eta eguna behar den moduan amaitzeko, abentura interesgarria gertatu zaigu. Dena ondo amaitu zen eta protagonistak buelta bat ematera joan ziren suhiltzaileen kamioian.




2. ZIKLOA



2009-2010 kurtsoaren hasieran, hirugarren eta laugarren mailakoak eskulanetan jo ta ke lanean aritu gara.

Udazkenean sartu garenez, urtaro honekin zerikusia duten bi lantxo era-kusten dizuegu.


Gustoko baduzue... etor zaitezte gure-gana eta egiteko pausoak azalduko dizkizuegu. Animo!



Udazkena



3. ETA 4. MAILAKOAK ARTISTA BIKAINAK




3. ZIKLOA

Urriaren 9an,
osteguna, 5. eta 6.
mailako ikasleria
Lobiano jauregira
joan ginan,
"Kontsumo ardu-
ratsu" tailerrean
parte hartzeko.
Jokuen eta le-
hiaketa baten bi-
dez erosketak




gure paga ondo erabiltzen ikasi genuen.
Ikasteaz gain oso ondo ere pasa
genuen.

IDAZLE TREBEAK



5. mailako ikasle-ek ipuin taile-
rrean gure ipu-
nak egin ditugu.
Ez pentsa gauza
erraza dela,
baina gustora ibili
gara. Gainera lan
taldea egin du-
gunez ados jarri
behar dugu eta
hori ere ez da
bat ere lan ma-
kala.



Maisuak Jaimitori gal-
detu dio:

- Zer egingo Zenuke aberatsa bazina? Ida-
tzi bost lerro
- Baina zergatik ez du-
zu ezer egiten Jaimi-
to?
- Horixe egingo nuke aberatsa banintz
EZER ERE EZ!

Leire Castelos

Preso batek beste
preso bati galdetu
dio:

- Zergatik zaude
hemen?
- Ez didatelako he-
mendik ateratzen
uzten!

Brais Rodriguez



Maisuak Jaimitori 3 esal-
di ekartzea agindu dio.
Etxean aitari esan dio:

- Aita, esan esaldi bat.
- Ez dit gogorik ematen.
Gero anaiari eskatu dio
beste esaldi bat esatea .
- Superman ogi aurpegia
Ondoren Amari eskatu
dio.
- Ez daukat dirurik, ez
daukat dirurik.

Hurrengo egunean esko-
lan:

- Jaimito esan zure esal-
diak
- Eta Jaimitok erantzun du:
- Ez dit gogorik ematen.
Orduan maisuak:
 - Nor zarela uste duzu?
 - Superman ogi aurpegia
 - Hau ordainduko duzul
 - Ez daukat dirurik, ez
daukat dirurik.

Leire Hurtado

Bidaia ajentzia
batean, gizon ba-
tek besteari dio:

- Bentanillakoari
iruzur egin diot.
Joan-etorriko
billetea erosи dut
eta ez naiz eto-
rriko.

Han geratuko
naiz.

Jon Gomez



TXISTEAK

Jaimito etxera joan da par-
tido bat jolastu eta gero.

Bere aitak galdetu dio:

- Zer egin duzu partidoan?
- Galdu
- Zenbat?
- 2-1
- Zenbat gol sartu dituzu?

Eta azkenik Jaimitok
erantzuten dio:

Hiru!!!

Jon Rodriguez

Jaimito denda batera doa eta
jostailuzko kanguro bat eskatzen
du.

Ordaintzeko orduan "Monopoli"-
ko billete bat ematen dio. Or-
duan dendariak dio:

- Billete hau ez da egiazkoa!
- Eta Jaimitok erantzun:
- Eta kanguroa egiazkoa da, ala?

Iker Marcos


Irla batean, kokotero bat dago
eta lau animali: Leohia, belea,
tximinoa eta jirafa. Zeinek
Hartuko ditu platanoak bizkor-
ren?

ERANTZUNA

Astakirten halakoal... kokotero
baten ez dago platanorik.

Aiman Boussaid

ZER NAHI DUZU IZAN NAGUSIA ZARENEAN?




IKER AKTOREA

Antzerkia
asko gusta-
tzen zait eta
famatua
izango naiz.




ILENIA DISEÑADORA DE MODA

Tengo mucha
imaginación, y
haría mis propios
vestidos





ISLAM POLIZIA

Sirena jarriko
nuke, eta
horrela aurre-
ko kotxe guz-
tiak pasatzen
utziko zidaten



JON IRAKASLEA

Hurrei gauza
pila bat era-
kutsiko nieke.
Hori bai, kon-
trol sorpresak
jarrito nituzke



AMAIA PELUQUERA

Ilea moztea
gustatzen
zait. Askori
ileak puntan
jarrito nizkie-
ke.



MARLENE COMENTARI- STA DE FUTBOL


Me gustan mucho
los deportes, y
así podría salir en
la televisión.



SALLABENTEKARIA

2010KO MARTXOA.

19. ZENBAKIA



ELKARBIZITZA LANTZEN

Eskolan elkarbizitzza proiektuarekin aurrera jarraitzen dugu. Ikasle guztien artean elkarbizitzza zer den adostu dute: "Ikas komunitateko kideen arteko harremanak errespetoa, berdintasunean eta tolerantzian oinarritutako erlazioan eraikiko dira"

Bestalde ikasleek elkarbizitzako marrazkiak egin dituzte, eta guztien artean Andonik eta Ikerrek egindakoa aukeratu dute eskolako logoa izateko.

